



Karmengo jaietako KIROL TXAPELKETA

Ezaugarriak

- Bi txapelketa izango dira: 3x3 saskibaloia eta 5x5 futbola.
- **Parte hartuko dute 11 eta 16 urte bitartekoek (2006-2009 urte artean jaiotakoak).**
- Partaideak mistoak izan daitezke. Emakumezkoak diren taldeak euren artean lehiatuko dira.
- 3x3 saskibaloian 3 jokalarik jolastuko dute (1 ordezkoa izan daiteke) eta 5x5 futbitoan 4 jokalarik eta atezain batek jolastuko dute (1 ordezkoa izan daiteke).
- Talde bakoitzak arduradun bat izendatu beharko du izena emateko garaian.
- Partidak Trintxerpeko Aranederreko pistetan izango dira uztailaren 15ean. Ordu-tegiak jakinaraziko zaizkizue.
- **Izen-ematea uztailaren 8an izango da Aranederreko pistetan goizeko 10:30etik 13:00etara edo eskubidean@pasaia.net helbidera partaideen izen abizenak eta jaiotze urtea bidali beharko da uztailaren 11a baino lehen.**

Araudia

- Txapelketa bakoitzean jokalariek talde batean bakarrik eman ahal izango du izena. Hau da, jokalaria bat saskibaloian edo futbolean egon daiteke izena emanda, baina ez saskibaloiko bi taldetan.
- Partiden iraupena 15 minutukoa izango da, gehienez. Izen-ematearen arabera, partiden iraupena aldatu egingo da; hala bada, alde aurretik jakinaraziko zaizue.
- Futbitoan atezainak eta 4 jokalarik jolastu ahal izango dute eta aldaketak edozein momentutan egin ahal izango dira.
- Saskibaloian 3 jokalarik jolastu ahal izango dute eta aldaketak edozein momentutan egin ahal izango dira.
- Epailerik ez da egongo. Izena emandako talde bakoitzeko boluntario batek egingo ditu gainerako partidetak epaileen lanak.
- Irabaziz gero 3 puntu lortuko dira; berdinketaren bidez 1 eta galduz gero 0. Berdinketarik bada, gol gehien sartu dituen sailkatuko da.
- Talde bakoitzeko jokalariek kolore bereko elastikoa edo kamiseta ekarri beharko dute.
- Txapelketa ahalik eta ondoen eramateko parte-hartzaileek jarrera ona izatea eskatzen da. Norbaitek lekuz kanpoko zerbait egin edo jarrera txarren bat badu, txapelketatik kanporatua izango da.

Zalantzaren bat izanez gero, edo galdera edo iradokizunen bat egin nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan beldurrik gabe antolatzaileekin edo idatz ezazu eskubidean@pasaia.net helbidera.

Trintxerpeko gazteak